



Ebazpena, 2019ko uztailaren 30koa, Justizia Administrazioiko zuzendariarena. Honen bidez, behin betiko ebazten da Bizkaiko Probintzia Bulego Fiskalean kudeatzaile arduradun aritzeko lanpostua zerbitzu-eginkizunetan hornitzeko deialdia.

Justizia Administrazioiko zuzendariaren 2019ko ekainaren 12ko Ebazpenaren bidez, Bizkaiko Probintzia Bulego Fiskalean kudeatzaile arduradun aritzeko lanpostu bat zerbitzu-eginkizunetan hornitzeko deialdia egin zen.

2019ko ekainaren 12ko Ebazpenaren zazpigarren ebazpenean ezarritakoarekin bat, eta Justizia Administrazioaren Zuzendaritzak Justizia Administrazioiko langileen arloan dituen eskumenak ezartzen dituen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 12. artikulua esleitzen didan eskumenaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Jendaurrean jartzea behin betiko Ebazpena, Hugo Fernández Bengoa jaunari 380003/1 lanpostua zerbitzu-eginkizunetan esleitzearekin bat, 2019ko irailaren 16tik aurrerako ondorioekin. Egun horretan sartu beharko da esleitutako lanpostura.

Bigarrena.- Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Justiziako sailburuordearen aurrean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

Gora jotzeko errekurtsoa jartzen denetik hiru hilabete igarotzen badira ebazpenik eman gabe, ezetsi egin dela pentsatuko da, eta irekita geratuko da administrazioarekiko auzibidea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 30a


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
JUSTIZIA SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA